

Xirimiri taldeak hainbat ekitaldi antolatu ditu bere 10. urteurrena ospatzeko

13.30EAN BAZKARIA EGINGO DUTE ETA 16.30ETIK AURRERA HAUR JOLASAK ANTOLATU DITUZTE ZULOAGA PLAZAN

DONOSTIA. Xirimiri astialdi taldeak hainbat ekitaldi antolatu ditu gaurko bere hamargarren urteurrena ospatzeko. "Astialdi talde batentzat den bora asko da eta ospatu beharra genuela pentsatu genuen", aipatu du Borja Ruizek, taldeko arduradunak. Hamar urteetan zehar elkar teko kide izan direnek parte hartuko dute. "Era batean edo bestean lagundu digutenei, begirale ohiei eta beste astialdi taldeetako partaidei bidali diegu gonbidapena. Bide batez, eskerrak eman nahi dizkiegu. Guztira, 150 pertsona bilduko gara", esan du.

Egitaraua, 10.30ean hasiko dute. Futbol txikia eta herri kirolak antolatu dituzte Trinitate plazan. "Eurria egingo balu, bertan behera utzi beharko genuke". Meza egingo dute 13.30ean San Bizente elizan eta 14.30ean bazkaria, atrioan. "Gurasoek prestatuko dute", aurreratu du Ruizek. Arratsaldean, Zuloaga plazan egingo dituzte ekitaldiak. 16.30ean haur jolasak antolatu dituzte. "Astialdi taldean aritzen diren haurrek hartuko dute parte. Dena

den, nahi duena hurbildu daiteke arratsaldeko ekitaldietan parte hartzera", esan du Ruizek.

17.30ean, haurrei zuzendutako musika izango da nagusi. 19.00etan, Hiru Gabe Bi taldeak joko du. "Zerbait begiralek osatzen dute", aipatu du. Drindots taldearen emanaldia-ekin bukatuko du Xirimiri taldeak egitaraua. 20.30ean hasiko dute kontzertua. Egunean zehar, 10. urteurrena dela eta, taldeak egin dituen kamisetak, motxilak eta txapak salduko dituzte. >A.J.

SE BUSCAN TESTIGOS DE ACCIDENTE EN DONOSTIA

Se ruega a cualquier testigo que presenciara el accidente ocurrido **el martes, 18 de noviembre a las 7:00 h.**, en el cruce entre la c/ Árbol de Gernika y Valentín Olano, en el puente M^a Cristina, se ponga en contacto en el teléfono **616 182 483**.

El accidente se produjo entre una furgoneta de color blanco y otra de color gris metalizado.